

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko azaroaren 10etik 16ra.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

16/11/2018 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Loreen eta landareen merkataritzarako enpresen probintzia arteko hitzarmen kolektiboaren 2018, 2019 eta 2020ko aparteko ordainsarien taulak aldatzen dituen akordioaren akta. **15661 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Ontziratutako edateko uren industriaren sektorerako Estatuko hitzarmen kolektiboa. **15666 xedapena - 21 or.**
- Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Kontserba begetalen fabrikaziorako hitzarmen kolektiboa. **15667 xedapena - 50 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/11/10

- **SUSTAPEN MINISTERIOA. – Aireportuak.** – Urriaren 11ko 1267/2018 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den Interes Orokorreko Aireportuen eta zerbitzu eremuen Antolamenduari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua, Zerga, Administrazio eta Lan Arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betetzeko xedearekin. **15405 xedapena - 12 or.**
- **LEHENDAKARITZARAKO, GORTEEKIKO HARREMANETARAKO ETA BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA. – Aireko nabigazioa.** – Irailaren 21eko 1180/2018 Errege Dekretua, zeinaren bitartez garatzen den Airearen Araudia eta aireko nabigazioko zerbitzuetarako eta prozeduretarako xedapen eraginkor arrunta eta orobat aldatzen diren honako hauek: urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aireko Zirkulazioaren Araudia onesten duena; maiatzaren 14ko 862/2009 Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten diren erabilera publikoko aerodromoen diseinurako eta jarduteko arau teknikoak eta erabilera publikoko aireportuen eta beste aerodromoen ziurtagiri eta egiaztapen araudia; uztailaren 23ko 931/2010 Errege Dekretua, zeinaren bitartez arautzen den aireko nabigazioko zerbitzuen hornitzaileen ziurtapenerako prozedura eta arauzko kontrola; eta abenduaren 2ko 601/2016 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Aireko Zirkulazio Operatiboaren Araudia. **15406 xedapena - 211 or.**

2018/11/13

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. – Doako laguntza juridikoa. Araudia.** – Azaroaren 7ko JUS/1170/2018 Agindua, zeinaren bitartez eguneratzen den doako laguntza juridikoaren Araudia onesten duen uztailaren 25eko 996/2003 Errege Dekretuaren II. eranskina. **15456 xedapena- 4 or.**
- **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. – Zerbitzu gutunak.** – Idazkaritzaordearen 2018ko urriaren 31ko ebazpena, zeinaren bitartez onesten den Laneko Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionalaren Zerbitzu Gutuna eguneratzea. **15493 xedapena - 1 or.**

2018/11/14

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA. – Kutsadura atmosferikoa.** – Urriaren 29ko TEC/1171/2018 Agindua, zeinaren bitartez arautzen den errekontzarako instalazio handien informazioa, kontrola, jarraipena eta ebaluazioa. **15514 xedapena - 14 or.**

2018/11/15

- **LAN, MIGRAZIO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.**
 - **Gizarte Segurantza. Ekitaldiaren itxiera.** – Azaroaren 13ko TMS/1182/2018 Agindua, zeinaren bitartez arautzen diren 2018ko ekitaldia ixteko eragiketak Gizarte Segurantzaren sisteman dauden erakundeentzat. **15559 xedapena - 7 or.**
 - **Gizarte Segurantza.** – Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren 2018ko azaroaren 5eko ebazpena, zeinaren bitartez baimena ematen den 2018ko urriaren 9an Mallorcako uhartean izandako uholdeen eta gainezka egindako uren eragina jasandako enpresentzako eta norberaren kontura diharduten langileentzako edo langile autonomoentzako kuoten ordainketa atzeratzeko. **15560 xedapena - 2 or.**

2018/11/16

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Itsas arrantza.** – Azaroaren 14ko APA/1186/2018 Agindua, zeinaren bitartez, bigarren azken xedapenean dagoen gaikuntza erabiliz, aldatu egiten den debekualdien eta harrapaketa mugen alorrean abuztuaren 2ko 629/2013 Errege Dekretua, zeinak arautzen duen koral gorriaren arrantzak, lehenengo salmenta eta hura arrantzatze baimenak lortzeko prozedura.. **15612 xedapena - 3 or.**

• **LEHENDAKARITZARAKO, GORTEEKIKO HARREMANETARAKO ETA
BERDINTASUNERAKO MINISTERIOA.**

- **Zergen bilketa. Erakunde laguntzaileak.** – Azaroaren 7ko PCI/1187/2018 Agindua, zeinaren bitartez aldatzen den ekainaren 29ko PRE/1064/2016 Agindua. Agindu horren bitartez garatzen da, aldez, Bilketarako Araudi Orokorra –uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bitartez onetsia–, Estatuko Administrazio Nagusiaren titulartasunekoak diren zergaz kanpoko eta aduanaz kanpoko baliabideak erakunde laguntzaileen bitartez biltzeko prozedurari dagokionez. **15613 xedapena - 3 or.**
- **Portu babesak.** – Azaroaren 15eko PCI/1188/2018 Agindua, portuaren esparruan itsas babesari buruzko araudia betetzen den ikuskatzeko sistema ezartzeko. **15614 xedapena - 12 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/11/16

• **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA**

- **EBAZPENA**, 2018ko urriaren 24koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez finkatzen baitira uztailaren 29ko 159/2014 Dekretua garatzen duen 2017ko martxoaren 16ko Aginduak aipatzen dituen aldizkako probak egiteko datei buruzko irizpideak. **5634 xedapena - 2 or.**
- **EBAZPENA**, 2018ko irailaren 3koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Ibilgailuen garajeetako instalazio elektrikoen zerbitzu-abiatzeen, handiagotzeen eta aldizkako ikuskatzeen espedienteak tramitatzeko agibideak ematen dituenak. **5639 xedapena - 6 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/11/16

- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA).** - 2019ko laneko jaiegunen egutegia. Akatsak zuzentzea. **4194 xedapena - 1 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/11/13

- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA.** - Bigarren huts-zuzenketa, honako Ebazpena honena: «Ebazpena, 2018ko irailaren 14koa, Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkararena, 2019 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Tokiko eta Lurraldeko festen egutegia ezartzen duena». 5 or

2018/11/14

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2018 FORU DEKRETUA, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuan ikusitako akatsak. Azken foru dekretu horren bidez, aldatu egin zen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zuena. Araudi horrek Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testuategina garatzen du. 2 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/11/14

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 28/2018 Foru Dekretua, azaroaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen duena. 7503 xedapena - 23 or.

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO